

# *Ikasleak mintzo*

*Joxe Mari Erzibengoa*

«Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Sergio, Tomas, Jaio eta Javiri. Beraien erantzunak askorentzat argibide izan direlako».

Azkeneko hamabost urte hauetan, euskara irakasteko eta ikasteko egin behar denari buruz, asko idatzi eta hitz egin da. Maila ezberdinetako eritziak eman dira. Era askotako liburu eta aldizkariak ekin diote arazoari. Orri asko bete dira ikuspuntu didaktikoak emanez.

Alabaina, gauza bati eman zaio garrantzia eta beste edozeren gainera azpimarratua izan da, hots, irakaslearen joera, irakasleen ikuspuntua, nahiz irakasbidea aztertzerakoan nahiz orientabideak amaterakoan. Arazo honetan, ordea, ikasleak ez du zerikusirik handiegirik izan, ez zaio protagonismorik eman, arazoak berak ematen diona izan ez bada behintzat.

Oinarri pedagogiko ona da irakaskuntzaren sujetoari kasu egitea. Haien azterketak eta analisiak entzutea, kontutuan hartzea, onartzea, hitz batetan, arazoak hola eskatuko balu.

Beste zerbaitekin. Euskararen alorrean egin diren gauzarik gehienek kanpoko eragina izan dute, salbuespen batzu izan ezik. Ereduak arrotzak izan dira. Bertako azterketak urriak. Bulegoko teoriari garrantzia eman zaie, behar ez zuten garrantzia beharbada eta, ondorioz, zenbait gauza mitifikatu egin da.

Hala eta guztiz ere, tresna hauetaz baliatuz, mirariak egin direla esan genezake, ze baldintzapenetan aplikatu diren kontutan hartzen bada bederen. Beraz, alde onak ere izan dira, zalantzarik gabe.

Esperientziaren arloa da, seguru asko, euskararen dinamikan mugitzen garenon saskirik bitxieta eta, egia esan, buztinezko pitxar hauek, eta ez besterik, izan dira, handik eta hemendik entzun, ikusi eta aplikatu ditugunak.

Edozein esperientzia delarik ere, beti aurkituko ditugu elementu nagusitzat irakaslea eta ikaslea. Jakina, hirugarren bat aipatzekotan, bi elementu hauen artean ematen den «ekintza» azpimarratuko genuke. Ondoren, irakasleak ikusi behar du noiz, nola eta zergatik iritsi behar duen ekintza horren, irakaskuntzaren, muinera. Gauza bat esaten ausartuko nintzateke, hau da, azken elementu honi, irakasbideari, eman zaio beste edozeri baino garrantzi handiagoa.

Esandakoaz gainera, bada beste zerbaitekin. Irakasbidea aipatzen denean, irakaslea ekartzen da gogora, bada, honek ikasleari dagokion ikasgaia zuzentzen dio. Eta, nola utzi aitortu gabe, egia da irakasleak duen zeregina izugarria dela. Ez dut baztertuta utzi nahi, hainbat aldiz entzun eta esan ere egin duguna, hots, liburu txar bat irakasle on batek hobetu egiten duela.

Nahikoa al da, ordea? Ene ustez, hankamotz geratzen da.

Nik, elkarrizketa antzeko honetan, ikaslearen betebeharra aipatu nahi dut. Ikaslearen ikuspuntu eta eritzia. Haien bizikidetasuna, esperientzia, ikasteko erabili dituzten tresnak, zein izan den egokia eta zein ez, zerk eduki duen eragin handia euskararen irakaskuntzan, zein egoeratan aurkitu diren euskara ikasteko orduan, eta abar luze bat, jakina.

Lau ikasleren erantzunak baizik ez dira; baina ideia Euskal Herrira zabalduko balitz, nolako erantzun-moetarekin aurkituko ginatke? Orain sutuki irakasten ditugun gauzak ez al lukete aldaketarik pairatuko? Eta, hau ere garrantzizkoa da, prest egongo al ginatke geure metodoen zenbait gauza aztertu eta berriztatzeke? Agian, utopia baten aurrean gaude.

Baten batek hau egiterik ez dagoela esan dezake. Ados, neurri batetan, baina Ikastetxe batzutako ikasle-talde bereziki ere ez?

Ausardia izango da, haatik, baina neure «txoko»ko esperientzia kontatzera noakizue. Lanak ez du inolako pretentsiorik; beste azterketa serio sago baten abiapuntua baizik ez du izan nahi.

Mutilak Deustukoak dira. Deustuko La Salle Ikastetxean urte-mordo bat

eman dute: zortzi. Orain, zorionez, euskaraz hitz egiteko gai dira: euskaldunak, beraz.

Haiengana hurbildu naizenean, galdera ez-zehatzegiekin joan naiz, baina berehala ulertu dizkidate.

Euskara ikasteko, mutil hauek sistima finkatua erabili dute, hots, oso sistimatizatua: Euskara Mailaka, alegia. Gainera, euskara asignatura-gisa eman dute, beste edozein naziotako hizkuntza emango litzatekeen modura. Astean 4 ordu izan dituzte. Zazpigarren eta zortzigarren ikasturteetan irakasle berbera izan dute eta, aldiz, aurreko sei urteetan, bat, bi, eta are, hiru. Ikasgelan 40 mutil izan dira, ia urte guztietan.

Egia aitortu behar bada, lau mutil hauek aukeratuak izan dira elkarhizketa hau egiteko: pizkorrak dira. Ez dira bakarrik, baina egoera larriagoan daude-nak badira.

Ikastetxeak, ikasgelatik at, ez dauka euskal giro larriegirik, nahiz eta Euskal Herriko zenbait kultur arlo betetzen dituen.

Datu hauek ezinbestelakoak iruditzen zaizkit, elkarrizketa bere lekuan kokatzeko. Zalantzarik ez dago, egoerak duen eragina hizkuntza baten irakaskuntzan eta, nola ez, ikaskuntzan ere.

Ondoko lerroetan, haiei zuzendutako galderak aditzera emango dizkizuet.

1. Hasteko, aurkezpen txikia eskatuko nizueke: izenak, non jaiok zareten, zenbat urte duzuen.
2. Euskara ongi erabiltzeko bide luzea geratzen zaizue oraindik. Hala eta guztiz ere, elkarriketan jarduteko gai zaretela esango nuke. Esaidazue, zerk lagundu dizue gehiago edo, batipat: ikastetxeak?, zeuek egindako lanak?, beste zerbaitek?
3. Ikastetxean urte asko eman duzue; irakasleak ere, asko; ikasteko metodo edo irakasbideak, ezberdinak. Ariketak ere, zer esanik ez, multzo eder bat. Zeintzu izan dira zuen ustetan hoberenak, erabilgarrienak, efikazenenak?
4. Ikasgelan ikasgaiei sistimatizazioa ematen zaie. Zuek ere asko dituzue eginak. Baina, ikasgelatik at, ikastetxe batek zer egin lezake euskarari laguntzeko?
5. Zergatik ikasi duzu euskara? Zertarako erabiltzeko asmoa duzu?
6. Zer esango zenieke euskara irakasten ari diren maisu eta andereñoiei euskararen egoera hobetzeko?

Galdera hauei emandako erantzunetik eritzi beste ondorio atera daitezkeela uste dut. Apika, gauzak hola bait dira oro har, batzu azpimarratu eta aztertu egingo dituzue; bestetzu, aldiz, gaitzetsi, baliarik, edo, are, aplikaziorik ez dutelako.

Sakonean beste zerbait dago. Irakas-kuntzaren sujetoei hitz egin dute; eman zaizkien elementuei kritika egin diete. Hau orientabidea da. Gure lanaren seinale bat, bero-beroa, itzulgingururik gabekoa.

I.

*Tomas* ..... Ba, Alvaro Tomas naiz, Bilbon jaioa, eta hamalau urte ditut. Nik esan behar dut nire etxean ez dela euskaraz egiten. Nire aita erdi-maketoa da. Batzutan zertxobait esaten du. Amak hitz egiten du. Hari esker egiten dut nik.

*Sergio* ..... Sergio Chasco dut izena, Bilbon jaioa. Hamalau urte bete ditut. Etxean euskaraz egiten da, baina ez larregi.

*Jaio* ..... Bilbon bizi naiz jaio nintzenetik. Hamalau urte ditut eta nire etxean ez da batere egiten euskaraz. Agian, Irundik itzultzerakoan nire arrebarekin hitz egingo dut.

*Javi* ..... Ba, ni Bilbon jaioa naiz eta hamalau urte ditut. Nire etxean ez da euskara asko hitz egiten, baina noizean behin bai, amak eta biok.

*Laburbilduz:* Aurkezpenaz galdetu arren, euskara aipatu digute. Badirudi etxea eta euskara loturik doazen bi gauza direla.

Etxean ez da euskara maiz erabiltzen eta, horretarako, arrazoi ezberdinak daude: denek ez dakite. Inork ez daki. Dakitenen kasuan, oso gutxi dakite; beraz, ez da erabiltzen.

Baina kasu guztietan ia, ama da prota-

gonistarik handiena, markatuena. Ama, beraz, lehen planoan. Euskarak, bestalde, harremanetarako balio du.

Egoera berri baten aurrean gaude, nolazpait esateko: gazte batek euskara ikasten du. Etxean bere arrebak ere ikasi egin du. Ondorioz, hitz egitekotan, harekin egin beharko aurrerantzean. Egoera hau maiz jaso daiteke mutil hauek bizi diren ingurunean.

II.

*Tomas* ..... Bueno, nire ustez, euskara ikasten gehienbat lagundu didana mintzatzea izan da. Euskara ikasteko hitz egin behar da, eta hori lortzeko bideoa oso garrantzizkoa izan da. Nork eman du bideoa? Bueno, Ikastetxeak.

*Sergio* ..... Ni Euskadin jaio naizen ezker, nire hizkuntza delako eta barruan daramadalako. Etxeko giroa garrantzizkoa da. Sustraiak hortik hartzen dira eta euskara maitatzen hasten da.

*Jaio* ..... Nire etxean arreba EGA ateratzen ari da eta urte asko daramatza hori ateratzen. Uste dut horrek bultzatu nauela zerbait. Euskara ikastea ere garrantzizkoa dela uste dut. Egia esateko, irakasle onak izan ditut.

*Javi* ..... Niri, euskara, Ikastetxean irakatsi didate. Gauza asko izan dira lagundu digutenak. Hasteko, ikasgelan. Euskara gaingitu behar baduzu, ikasi egin beharko duzu. Baina hori ez da niri gehienbat bultzatu didana; ama izan da. Gero, euskara gure hizkuntza dela jakiteak. Hizkuntza hau gustatzen zait eta horregatik erabiltzen dut. Honez gainera, euskalduna zarela esaten hasten bazara, derrigorrez lehenengo gauza euskara jakitea da.

*Laburbilduz:* Gure mutil hauek ez dira abarretatik ibili.

Amak eragin handia du euskara ikasteko eta maitatzeko orduan. Hau, agian, bagenekien, baina hamalau urteko mutilek azpimarratzea edozein hizkuntzalariren ildotik ibiltzea izan daiteke.

Euskara gure hizkuntza da. Noiz konaturatzen da bat hizkuntza berea den zerbait dela eta, beraz, ikasi eta maitatu egin behar duela? Garai batean, eta

oraindik orain agian ere bai, euskara ikastea, besteak beste, ideologiarekin lotzen zen, eta hau geroago lortzen zen gauza zen. Ideologiak badu indarrik gaur egun ere, baina «gurea den zerbait» maitatu egiten da eta ikasi, edo bestela ez da deus egiten.

Euskara ere beharrezkotzat ematen da. Gizartean arrazoi honek indarra eta kokapena hartzen duen neurrian, gazteengan ere sinisgarritasuna garrantzizko faktorea bilakatzen da.

### III.

*Tomas* ..... Ikastetxeak liburuak zabaltu behar ditu, irakurtzeko liburuak, Euskarazko liburu gehiago. Joan den urtean, adibidez, plastikazko liburuak izan genuen. Oso ondo zegoen. Ikastetxeak holako gauzak egin ditzake.

*Sergio* ..... Badaude beste asignatura batzu euskaraz oso ondo egin edo eman litezkeenak. Adibidez, marrazkia, soinketa...

*Jaio* ..... Ikastetxean erlijio-taldeak daude, baina erdaraz. Zergatik ez euskaraz ere? Irungo eta Kanpezuko kanpaldiak oso onak dira mintzaira bultzatzeko. Kultur arloa ere, euskaraz eman daiteke, hola jendeari euskal gauzak gehiago gustatuko litzaizkioke.

*Javi* ..... Ikasgelatik aparte, kanpaldiak daude. Ondo dago. Baina burutapen ona izango litzateke honako hau: lau lagunek euskaraz praktikatu nahi dute, ondo. Biltzen dira eta denbora pixkat ematen dute solasean, eta euskaraz jakina.

*Laburbilduz:* Ihardespen guztien azpian gauza berezi bat nabari da, hau da, eskolan egiten diren gauza guztiak ondo baldin badaude ere, berez ez dira nahikoak euskara behar bezala ikasteko. Beste baliabide aberatsagoak behar dira eta Ikastetxeak eratu beharko lituzke.

Kanpaldiak aipatu dira. Hauetako hiru lauzpabost urtetan kanpaldietan izanak dira. Aidanez, oso ondo egokitu zaizkie. Oztopoak oztopo, oso egokiak dira mintzatzeko, batek dioskun bezala.

Euskarazko liburuak. Liburu hauek ez dira soil-soilik irakurtzekoak, patxada ederrean irakurriez gero plazerra sortarazten duten horietakoak. Hemen ikasleok zerbait aberatsagoaren eske ari dira, hau da, gaiak ikasteko balio duten horietakoak, testu-liburuak hain zuzen.

Euskararen praktika. Taldean egin daitekeen praktika eratua eta antolatua. Ikastetxeak era askotako taldeak egiten

ditu. Hemen batek erlijio-taldeak aipatu ditu. (Mutil hauek Ikastetxe pribatuan egon dira, erlijiosoen Ikastetxean.) Zergatik ez, ordea, euskarazko taldeak?

Batek kultur gaiak aipatzen dizkigu. Balio handiko ekimena da. Mutil berberak joera honen adierazpidea ematen digu, alegia, hola euskararekiko onespena lortuko da.

Gure artean hizkuntzak jaso ditu aipamen guztiak ia, baina zein mailatan dago gure euskal kultura? Edo ez dugu kulturarik, hitzaren zentzu zehatzean, lantzean behin, hemen edo han, irakurtzen den bezala? Hemengo mutilek badakite zer den euskal kultura, inolako elukubrazio abstraktorik egin gabe. Euskal pintura, euskal eskultura, euskal historia, euskal literatura... euskal musika etab... badela eta nolakoa den jakiteko irrikaz ditugu. Plangintza behar da, eta ez dut uste asmo orokor bat dagoenik gure Ikastetxeetan.

## IV.

*Tomas* ..... Lehen esan bezala, garrantzitsuena euskaraz mintzatzea da.

*Sergio* ..... Nire eritziz, ikasgelako ariketak (bideoak, liburuskak etab.) oso onak dira, baina garrantzia daukana irakaslea da. Bere esperientzia euskara irakasten eta, bestaldetik, ikasleekin behar duen eramanpenak edo pazientziak.

*Jaioa* ..... Bideora joatea gustatu zait. Halere, pelikula bat azpidatzita egoteak kalte egiten du, begiak joaten zaizkizu. Irakurri ditugun liburuak ere oso interesgarriak izan dira.

*Javi* ..... Ikasgelan egin dugunak asko lagundu dit. Baina, hortaz aparte, beste hizkuntzetan bezala, entzutea garrantzitsuena da. Tontakeria ematen du, baina euskal telebistatik botatzen dituzten gauzak asko laguntzen dute.

*Laburbilduz:* Irakaslearen garrantzia markatzea, irakaskuntzaren munduan gabiltzanon eritziarekin bat etortzea da. Ez dira makalak batek irakasleei eskatzen dizkien bi baldintzak: batetik, jarduten denarekiko esperientzia eta, bes-

etik, ikasleekiko pazientzia. Edozein pedagogok sinatuko luke.

Irakurtzea garrantzizkoa da, beharrezkoa. Hiztegia ikasten da, egiturak lantzen dira. Baina honetaz aritu izan gara aurreko batean.

## V.

*Tomas* ..... Biharko egunean hobe bizitzeko ikasi dut. Lan bat edukitzeko oso garrantzizkoa izango da euskara jakitea.

*Sergio* ..... Lehen esan dudana bezala, Euskadin jaio naizelako, eta hemen lan egin behar badut, derrigorrezkoa izango da hemen jarraitzeko.

*Jaio* ..... Eskontzen banaiz, etxean euskaraz egitea espero dut. Igande honetan «ibialdia» izango da eta, lotsa emango lidake denak euskaraz hitz egitea eta nik erdaraz.

*Javi* ..... Gustatzen zaidalako eta nire Herriaren hizkuntza delako. Arrazoi hau nahiko «patriotikoa» irudituko zaizu, baina hala da. Gero nere familiarekin hitz egiteko eta, baldin bada, lagunekin.

*Laburbilduz:* Euskara ikasteko dituzten arrazoiak eman dizkigute. Gizartean ere berberak aurki genitzake seguru asko.

Lanbidea aipatu du batek. Bai gurasoengan bai ikasle helduengan arrazoi honek pisua eta eragina du.

Euskadin jaio izanak ematen dio besteari indarra eta kurria euskara ikasteko. Herriaren hizkuntza ere bada; beraz, ikasi egin nahi du. «Patriotikoa» dela esan digu, baina ez du kezkatzen.

Hemengoa izateak bultzatzen du beste bat euskara jakitera. Bere barruko giharra ukitua izan da. Adinagatik agian?

Azterketa pertsonala al dago arrazoibide honen tartean? Bizi izan duen esperientziak bultzatu al du hala pentsatu eta sentitzera? Gaztaroko idealismoren bat?... Tankera honetako txori asko ikusten ez badira ere, lantzean behin, hegoizearen konpasean, usoen gisa iragaten direnak ikus daitezke.

Azkenik eta, aurreko puntu batekin lotuta, honako burutapen hau egitera ausartuko nintzateke: egia al da gaur egun eta hemen lanbidea lortzeko euskararen beharrikan ere baldela? Zein neurritan? Ez al dira lanpostu batzu beharrezkoak honetatik urrundu, eta betirako?

## VI.

- Tomas* ..... Euskara irakasten ari direnei euskaraz mintzatzeko esango nieke eta ez egiteko liburuetan agertzen diren ariketak.
- Sergio* ..... Dituzten gogo guztiak irakaskuntzan ipintzeko eta ikasle guztiak eratzeko, haien etxeetan euskaraz mintza daitezen, beharrezkoa bait da.
- Jaio* ..... Ez bazaio gustatzen denbora batez uzteko eta gero segituko duela eta, gustatzen bazaio, ondo ikasteko eta, ahal bada, bere etxean hitz egiteko, bere lagunekin, bere amonekin, edo halako zerbait.
- Javi* ..... Ba garrantzitsuena praktikatzea dela, eta ez buruz astero aditzak ikastea. Ona izango litzateke astero egun bat erabiltzea euskaraz zerbait eztabaidatzeko, hola praktika eginez. Pentsatzen dut garrantzizkoa dela itzulpenak egitea, hala nola euskaratik erdarara.

*Laburbilduz:* Aholku onik ez zaigu falta irakasleoi. Bi mutilen erantzunek kasu berezia merezi dute, alegia, Tomasenak eta Jaiorenak.

Tomasek «ez egiteko liburuetan agertzen diren ariketak» gomendatzen duenean, bi gauza adierazi nahi dizkigu, ene ustez: bata, mutila ezagutuz gero, ariketarik garrantzizkoena mintzatzeko dela eta, ondorioz, liburuetan dauden ariketak ez direla hain beharrezkoak.

Jakina da, bestalde, ariketak, ariketa batzu bederen, garrantzizkoak direna; baina, hala eta guztiz ere, mintzatzeari eman beharko litzaiokoe denborarik luzeena.

Baina, bigarrenez, mutila ez da soberan liburuzalea, hitz egitea gustatzen zaio batipat. Mintzatzeko erraztasun handiagoa du. Eguneroko ariketak astunak eta aspergarriak egiten zaizkio.

Jaiok, berriz, galdera nahastu egin du aidanez. Irakasten dutenei zuzendu beharrean, ikasten dutenei zuzendu zaie; beraz, galderaren zentzua galdu egin da.

Gauza harrigarria da mutil gazte hauek mintzatzeari, euskara erabiltzeari, ematen dioten garrantzia. Honek gure irakasbideak aztertzeraz eraman behar gintuzke. Erabilkera anitza gainera, hots, ikasgelan —oro har ikasle-kopuru handiegia izaten bada ere— eta batipat, ikasgelatik at, honetarako Ikastetxea eta beste zenbait elementu inplikaturik gertatzen direlarik.

«Eztabaida» hitza aipatua izan da. Ikasleci asko gustatzen zaie ariketa-moeta hau. Eguneroko erritmoa apurtzen du, ariketa arruntan mekanismo astun eta pairagaitza. Hala eta guztiz ere, edozeinek ikus dezake ekintza honek bere baitan duen arriskua. «Eztabaida» ikasle-taldeko batzuren artean soilik egin daiteke. «Gaitzerdi!» esan lezake norbaitek. Baina, beste ikasle-kopuru handiarekin zer egin? Ez al da hobe izango ikasle-kopuru handiago bat «salba» dezakeen irakasbidea aukeratzeko? Jakina, azkeneko honek ez du batere zapuzten gure elkarrizketatuek azpimarratu digutena.

\* \* \*

Benetan puntu honetara iritsi eta gero, batek ez daki ondorio-mailetara jo edo dauden bezala utzi. Esperientzia izan da eta, alde horretatik, ondorioak ezin litezke egoera guztietara zabal. Baina esperientzia izan delako hain zuzen ere, bizikidetasun horren ikuspegitik hartuta, toki batzutarako orientabidea izan daiteke.

Mutil gazte batzuren azterketa izanagatik, nik ez nituzke baztertuko hemen esan dizkiguten zenbait gauza. Gainera, nork ez litzuzke sinatuko, era batera edo bestera, ongi edo zatarki, esan zaizkigun gauzatxoak?

Gizarte-arloko gai asko eta asko dira gure ikasleen adimen eta buruetan dan-

tzan dabiltzanak eta, okerragoa dena, erantzunik ez dutenak. Honetan, hots, euskararen dinamika eta didaktikan, haien esanetara askozaz ere irekiagoak egon beharko genuke. Hona hemen, nire belarrietara hamaika aldiz heldu diren galderak: Zer da euskara? Norena da? Zergatik ikasi beharra dago/dugu? Zertarako ikasi? Balio al du gerorako? Norekin hitz egin? Kanean hitz egiten al da? Nire aitak eta amak ez dakite, nik zergatik jakin behar dut? Politikoez ez dute hitz egiten, nik zergatik bai? Ez al naiz arraro samar geratzen euskara hitz eginenez, nire inguruko ia denak erdaraz ari baldin badira?

Hauen eta beste galdera batzuren erantzunak ez daude inongo kode bitxian. Ene ustez, gure ikasleek eskubide guztiak dituzte erantzun leial eta jatorrak josotzeko, eta ihardespena maila guztietan mugitzen direnen ahotik etorri beharko lukete.

Alabaina, nik ez nuke laburpen hau bukatu nahi proposamen batzu egin gabe. Jakina, proposamenak hitz gutxitan formulatuko ditut eta, gainera, mutilen hitz berak erabiliz:

- euskara eta etxea
- euskara eta ama

- euskara eta harremanak
- etxean euskararik ez, baina euskaldunberrien artean bai
- euskara eta mintzamina
- euskara gure hizkuntza da
- euskara eta ideologia
- euskara eta lana, gizartea
- eskolan egiten den euskara ez da nahikoa
- euskara eta jardunaldi bereziak
- euskara eta liburuak
- euskara eta Euskal Telebista
- Euskal Telebista eta azpitoluak
- euskara eta praktikak, eztabaidak
- irakasle on baten indarra
- euskara eta irakasbide egokiak
- euskara Euskadiko hizkuntza
- euskara eta bere inguruko gauzen esanahia

Zerrenda informal honen azpian beste hainbat aztergai daude. Esperientzia azaltzeko erabili dudana era oso zientifikoa izan ez bada ere, erantzunak, ene ustetan bederen, ispiluan isladatzen diren errainuak bezain argiak izan dira; eta, azken batetan, hauxe izan da eta ez besterik aditzera eman nahi izan dudana.

## EL ALUMNO AL HABLA

Métodos, teorías de aprendizaje, recursos... ¿Y el alumno?

El artículo es una pequeña encuesta a cuatro alumnos de 8.º de EGB capaces de hablar euskara como resultado de un largo proceso de aprendizaje. Estos han seguido durante ocho años, cuatro horas semanalmente, un método bien definido y sistematizado: el método Euskara Mailaka. A diferencia de los seis primeros cursos, en los dos últimos el alumno ha tenido a un mismo profesor. La media de alumnos por curso ha sido de cuarenta.

Estas son algunas de las cuestiones formuladas:

— ¿Qué es lo que más te ha ayudado? El centro, el trabajo personal...

- De las modalidades de ejercicios, ¿cuáles han sido los mejores, los más útiles y eficaces?
- ¿Qué podría hacer el centro, además de las clases, para coadyuvar al proceso de aprendizaje?
- ¿Por qué has aprendido el euskara? ¿Para qué piensas utilizarlo?
- ¿Qué sugerirías a tus profesores cara a mejorar la situación del euskara?

El alumno debería ser, en todo momento, referencia fundamental. Esta perspectiva es conditio sine qua non para la personalización y adecuación del proceso didáctico, único modo de que la actuación didáctica resulte enteramente eficaz.

## THE PUPIL'S TURN

Methods, theories of learning, means... And what about the pupil?

The present article is a small inquiry to four fourteen year old students finishing their primary studies capable to speak euskara as a result of a long learning process. They have followed for eight years and four hours a week a well defined and systematized method: Euskara Mailaka. Unlike for the first six years, in the last two the pupils have had the same teacher. The teacher/pupil ratio has been of forty per class.

These are some of the questions asked to them:

— What is it that has helped you most? The school, your personal work...

— Among the several different exercises, which ones have been the best, the most useful and efficient?

— Apart from giving the lessons, what else should the school do to help in the learning process?

— Why have you learnt euskara? What are you planning to use it for?

— What would you suggest your teachers so as to improve the situation of the language?

The pupil has to be at any moment a fundamental point of reference. This perspective is a «sine qua non» condition for the personalisation and proper use of the didactical process, being the only way to render didactical actualion really efficient.

## L'ÉLÈVE A LA PAROLE

*Méthodes, théories de l'apprentissage, ressources... Et l'élève?*

*L'article est un sondage réalisé à quatre élèves de 8<sup>ème</sup> de EGB capables de parler en euskara après avoir parcouru un long procès d'apprentissage. Ils ont suivi pendant huit ans, quatre heures par semaine, une méthode bien définie et systématisée: Euskara Mailaka. A la différence des six premières années, l'élève a eu un même professeur pendant les deux dernières. La moyenne d'élèves par classe a été de quarante.*

*Voici quelques questions qui leur ont été formulées:*

— *Ce qui t'a aidé le plus c'est le Centre Scolaire, ton travail personnel...?*

— *Parmi les différents exercices, quels sont ceux qui t'ont semblés les meilleurs, les plus utiles et efficaces?*

— *Qu'est-ce que le Centre Scolaire pourrait faire, en plus des cours, pour contribuer au processus de l'apprentissage?*

— *Pourquoi as-tu appris l'euskara? Quelle est l'utilisation que tu penses en faire?*

— *Qu'est-ce que tu voudrais suggérer aux professeurs pour améliorer la situation de l'euskara?*

*L'élève devrait être en tout moment la référence fondamentale. Cette perspective est condition sine qua non pour la personnalisation et l'adéquation du processus didactique, seul moyen d'obtenir une action didactique tout à fait efficace.*